

Herririk Herri | 6

Atxondon Barraskiko etxeak eraikitzen jarraitzeko abal-emailea topatu dute



Berbaz | 8

Nekane Jurado: "Bizi dugun krisia ez da ekonomikoa bakarrik; estrukturala da"

Kultura | 12

Paulo Lameirok umeentzako tailerra emango du Durangoko Musika Eskolan

"Aurten oso talde ona daukagu. Edozein egoeratan aurpegia emateko prest dago"

Txema Lasa
Athleticeko jokalaria ohia



Kepa Aginako

KIROLA | 15-16

Durangaldeak ere egingo du bultza Bukaresten

Athleticen hamaikakoan ariko dira Iturraspe abadiñarra eta Amorebieta iurretarra

Europako finalean, Durangaldeko hainbat zale egongo dira animatzen, maiatzaren 9an

BERRIZ | 2

CD, toner eta pilak batuko dituzten kontenedore berriak

Arropa bakarrik ez; orain, bil-keta selektiborako kontainer osoagoak ipini dituzte udaletxe alboan eta tren geltokian. Eki-men aintzindaria da Bizkaian.

Durango | 2

"Okupazio ilegala" salatu dute Fundifes enpresaren jabeek

Iurreta | 4

Kale Azoka antolatu dute Landa Garapenak eta udalak

Elorrio | 7

Leiz Miñotako Plan Berezia urtebetean gura du prest udalak

Mallabia | 6

Autobus ordu aldaketagatik kexa aurkeztu du Mallabiko Udalak

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

A+
Applus
ISO 9001
Certification
Technical Center
ACREDITADO POR ENAC

A+
Applus
ISO 14001
Certification
Technical Center
ACREDITADO POR ENAC

A+
Applus
ISO 18001
Certification
Technical Center
ACREDITADO POR ENAC

Eitua Industrigunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.net

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

■ DURANGO

“Okupazio ilegala” salatu dute Fundifes enpresaren jabeek

Gizon bat atxilotu zuten bertan sexu erasoagatik;
eta iaz andra bat hil zen, leihotik behera erorita

Tabirako Fundifes enpresa abandonatua gertatu diren bi erasoen aurrean, enpresako jabeek “erantzunkizunez” jokatu dutela adierazi dute: “Okupazio ilegala salatu genuen Ertzaintzan, eta polizia indarren esku utzi dugu bertan gertatzen dena”. Hainbat pertsonak bizilekutzat hartua du abandonatutako eraikina.

Azken gertaera, joan zen egue-nean jazo zen. Ertzaintzak 34 urteko gizon bat atxilotu zuen eraikinean, ustez emakume bati sexu eraso egin ziolakoan. Ertzaintzaren bertsioa honakoa da: Tabi-

emakumearen oihuak entzun zituzten bere senide eta lagunek, eta laguntzera joan ziren. Ustezko erasotzaileak suzko arma batez mehatxu ere egin ziela zabaldu du Ertzaintzak. Biktimaren hurrekoek Ertzaintzari deitu eta 34 urteko gizona atxilotu zuten.

Joan zen ekainean, berriz, abandonatutako fabrikako bulegoko leihotik jausita, Bilboko 31 urteko emakume bat hil zen. Egun batzuk beranduago, Ertzaintzak emakumearen bikotekidea atxilotu zuen, hilketa egotzita.

Birkalifikazio eskaera

Fundifes enpresaren jabeak, bertan eta Otsaila XXI enpresetan jardun zuten langileak dira. Urteak daramatzate udalari 16.000 metro koadrodun lurren birkalifikazioa eskatzen. Urteotan hainbat mobilizazio antolatu dituzte. 2010eko martxoan itxialdia egin zuten udal txean. Udalak birkalifikazioa egiten denean lurzoru horri dagokion dentsitateagaz egingo dela azaldu du. ■ M. O. / J.G.

Urteak daramatzate udalari 16.000 metro koadrodun lurren birkalifikazioa eskatzen

ra auzoan, 22:00etan, gizon batek fabrika batean lo zegoen emakume bati hartu-eman sexualak izatea proposatu zion, eta, ezetz erantzun ostean, gizonak emakumea heldu eta arrastaka eroan zuen;



Fundifes enpresa Durangoko Tabira auzoan kokatuta dago.

EAJ: “Jabego pribatua denez, udalak ezin du ezer egin”

Udalak Fundifesen kasuagai zibil edo penala dela azaldu du, “ez administratiboa”. EAJren gobernu taldeak dioenez, “jabego pribatua denez, udalakezin du gauza handirik egin”. Montebideon eta Artekalen antzeko kasuak gertatzen direla diote jeltzaileek: “Egin dezakegun bakarra jabeak

informatzea da eta, gura badute, jabeek laguntzea”.

Bilduk kritikatu egin du udalak eta udaltzaingoak oraindik informaziorik eman ez izana: “Eraso sexista honen aurrean gure elkartasun osoa adierazi gura diogu eraso jasan duen emakumeari”.

PSE-EEko Pilar Riosen ustez, udalak gai honetan badu zer eginik: “Eraikina erortzeko dagoeladeklara dezake, baina prozesu horrek urteak iraun ditzake. Hobeto da jabeekin akordio batera heldu bota edo tapiatzeko”.

Ildo beretik jarraituta, Aralarreko Dani Maezturen berbetan, udalak hondamen espediente zabaldu beharko luke, “eraikina eta hari atxikita dagoen pabilioiaren hondamena deklaratzeko”.

Lan arloan, kristauen konpromisoa eskatu dute

Elizbarrutia ‘Lana bizigai’ kanpaina egiten dabil



Elkarretaratzea, udaletxe aurrean.

“Prekarietatea handitu da, kontratu laburretan ez dago formaziorako ia astirik eta murrizketak segurtasunean egin dituzte hainbat enpresek”. Lan arloan kristau komunitateak konpromisoa hartu behar duela aldarrikatu dute Tabira Pastoral Barrutiak eta Langile Pastoraltzako Elizbarrutiko Idazkaritzak.

Lana bizigai kanpaina ari dira eta, horren baitan, gaixotasun profesionalak eta lan istripuak aitoritzeko eta biktima eta familiei elkartasuna adierazteko ekitaldia egin zuten, pasa den barikuan, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna bezperan. Krisi garaian lan istripu kopurua hazi egin dela kritikatu zuten. ■ A.U.

Durango eta Izurtza arteko mugarriei bisita, bihar

30 mugarri inguru dira, 6,4 kilometroko bidean

Durango eta Izurtza arteko 30 mugarri ingurutatik ibilaldia egingo dute bihar goizean. Alpino mendizale taldeak eta udalak 13. aldiz antolatu dute Mugarri Eguna. Herriko mugetatik egiten den ibilaldiaren lehen etapa izango da biharkoa; Andra Mariako elizpe-

Dolometa eta Mendiganetik pasatuta, Neberondoraino joango dira ibilaldian

tikirtengo dira, 08:30ean, eta Dolometa eta Mendiganetik pasatuta, Neberondoraino joango dira ibilaldian. Lau ordu inguruko ibilaldia dela kalkulatu dute; guztira 6,4 kilometro egingo dituzte.

Eguraldi onagaz 200 bat pertsona batu izan dira jaian. Gaur da izena emateko azken eguna, baina bihar bertan han agertzeko arazorik ez da egongo. Azaldu duteenez, “jendea eguraldiari begira egoten da, eta azken orduan ematen dute izena askok”. Ibilaldia amaitzerakoan hamaiketako eta oroi-garriak banatuko dituzte. ■ A.U.

200 landare zozkatuko ditu merkatarien elkarteak

Durango Txartela erabilia eskuratu ahalko dira

Maiatzaren 25era arte, Durango Txartelagaz erosketak egiten dituzten herritarren artean kalanchoe motako landareak zozkatuko ditu +Dendak merkatarien elkarteak. Durango Txartelaren erabiltzaileak “saritzea” dakanpai-

naren helburua. Durangaldean 87 denda daude Durango Txartelera batuta.

Merkatarien elkarteak 200 landare ditu zozkatzeko. Erosterakoan, tiketeen ipiniko du erosleak saria lortu duen edo ez, eta irabaz-

leek Nafarroako Rural Kutxara jo beharko dute landareen bila.

Txartelaren abantailak

Elkartekoek gogorarazi dutenez, Durango Txartela doako kredituzko visa txartela da. Ez dauka komisiorik eta edozein bankutan helbideratu daiteke. Maiatzean abiatu duten kanpaina honen antzeko egitasmoez gainera, nabarmendu dute %3ko deskontua egiten dutela elkarteko kide diren gasolindegietan; Otxandio eta Izurtzako Avia gasolindegietan. ■ A.U.

DURANGALDEA

Hiltegi berriko obretarako, "inplikazioa" eskatu dute

Lanetarako 7,5 milioiren %60 behar omen dute

Abadiñoko alkateak, pasa den astean, Erraldek 2,6 milioiko zorra duela adierazi eta gero, administrazio kontseiluko kide ohiek elkarrean zorraren inguruko azalpenak eman dituzte EHNERen aldizkarian. Diotenez, bi milioi pasatxo dagokie hiltegi berriko lanen 1. faserako eskatu zen maileguari.

Oharra izenpetu dute Jabier Azpitarte presidente ohiak, Niko Moreno presidenteorde ohiak eta Alberto Llona idazkari ohiak. Euren

ustez, "Erralde disoluzio prozesuan dagoela esateko azalpen bakarra esparru baten proiektua likidatzea erabaki dutela da".

Berrizko hiltegiko eraikitze faserako 7,5 milioi beharko direla azaldu dute: "%40 Eusko Jaurlaritzak emango du". Falta dena lortzeko "udal berrien eta administrazioen inplikazioa" lortu gura izan dela esan dute. "Diru guztia eduki arte lanekin ez hastea erantzukizunez jokatzea dela uste dugu". ■ A. U.

OTXANDIO

Jai Batzorde biziberrituak kartel lehiaketa berreskuratu du

Santamaña jaiak antolatzen diharduen Jai Batzordea biziberritu egin dute. Ohiko bost-sei lagunak barik, 25 bat dabilta orain, eta ekitaldiak prestatzeko aukera zabalagoa dute. Horrela, aurten Santamañetako kartel lehiaketa berreskuratzea erabaki dute. Orain arteko aldi

bakarra 2008an izan zen. Lehiaketa adinaren arabera banatu dute: hamasei urtera artekoak eta hortik gorakoak. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 29an amaituko da, eta udaletxean edo helbide honetan aurkeztu daitezke lanak: jaiatzordea@gmail.com.

Ekaineko lehen asteburu bietan lanak kontzejuean ipiniko dira ikusgai eta herritarren botoek erabakiko dituzte irabazleak. Nagusientzako saria Orio hotelean asteburu pasa eta spa saio bat da. Gazteen saria irabazlearen adinaren arabera erabakiko dute. ■ J. D.

BERRIZ

Kontainer berriak ipini dituzte, bilketa selektiboa errazteko

Udaletxe alboan eta tren geltokian egokitu dituzte; aitzindari da Bizkaian



Orlan Isoird alkatea, udaletxe alboko edukiontzia estreinatzen.

Arropa jasotzeko herrian egon diren edukiontzia kendu eta beste bi ipini dituzte, berriak. Udaletxe alboan eta tren geltokian ipini dituzte edukiontzia.

Arropa eta tresnen berrera-bilpena bultzatzeaz gainera, orain pilak, CDak eta tonerrak ere botatzeko aukera dago. Bizkaian aitzindari da sistema, kontainer berriak bilketa selektiboa erraz-

Zerbitzu honegaz hondakin kopurua asko murriztuko dela aurreikusten du Isoirdek

ten dutelako, objektu bakoitza dagokion zuloan botata. Telefono mugikorak, etxetresna elektrikoak, jostailuak edota liburuak ere bertan bereiztu ahal dira.

Orlan Isoird alkateak, sastar kopurua asko murriztuko dela uste du. Iaz, arropen ontzian 28.000 elementutik gora batu ziren. "Berrerabilpenaren bidez, tresnen bizitza luzatu eta hondakin bihurtzea ekiditen da".

Ingurumena zaintzen laguntzen duela azaldu du Isoirdek, kausa ondorio adibideekin: "Hiru liburu berrerabiliz, 84 litro ur aurrezten da". ■ M. Onaindia.

3-5 urte
Txiki txoko
2006-2008 artean jaioak
Ordutegia, astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 12:45etara
(egitarauaren arabera)

6-10 urte
Hiri kanpamendua
2002-2005 artean jaioak
Ordutegia, astelehenetik ostiralera: 09:15etatik 13:00etara
(egitarauaren arabera)

11-14 urte
Abentura
1998-2001 artean jaioak
Ordutegia, astelehenetik ostiralera: 09:30etik 13:30era
(egitarauaren arabera)

7-10 urte
Ingeleseztolgetan
1998-2004 artean jaioak
Ordutegia, astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 13:00etara
(egitarauaren arabera)

2012

UDA TOPERA

Txiki txoko
Abentura
Hiri kanpamendua
Ingeleseztolgetan

Plazak zozketa bidez banatuko dira

Ez da epea kanpoko izen-ematerik onartuko. Durangon erroldatuak lehenetsuna izango dute zozketan. Adjudikatariorak, epe barruan eskatutako dokumentazioa eta ordainketa bete beharko du. Ordainketa egin ondoren ez da dirurik itzuliko. Plazen kopurua mugatua da. Zozketa zerrendak Pinondo Etxean, www.durango-udala.net eta Herriarrentzako informazio puntuetan izango dira ikusgai.



	ekainak 25 - uztailak 6		uztailak 9 - 20		Txanda biak	
	LEHENENGO TXANDA		BIGARREN TXANDA			
UDA TOPERA 2012	Durangon erroldatuak	BESTEAK	Durangon erroldatuak	BESTEAK	Durangon erroldatuak	BESTEAK
Txiki Txoko						
Hiri Kanpamendua	80€	100€	80€	100€	130€	175€
Ingeleseztolgetan						
Abentura						
			Aurten asteka ere aukeratu dezakezu! DESKONTUAK 1.neba arreba edota familia ugariarentzat.			

Izen ematea	Maiatzaren 7tik 16ra / Astelehenetik ostegunera 10.00-14.00 / 17.00-19.00 Ostiraletan 10.00-14.00 10.00-14.00
Non	GAZTE INFORMAZIO BULEGOA Pinondo Plaza 1, Durango Tel: 94 603 00 30 informazioa@durango-udala.net Online: www.durango-udala.net
Zozketa	Maiatzaren 22an
Ordaintzeko epea	Maiatzaren 22tik 31ra

IURRETA

Udako tailerretan izena emateko, maiatzaren 14ra arte dago aukera

Umeen aisialdia "hezitzailea eta, aldi berean, dibertigarria" izatea da udako tailerren helburuetako bat. Baita ikasteko interesa era ludikoan piztea ere, edota, genero ikuspuntu batetik, umeen garapen integrala sustatzea.

Hiru eta hamalau urte arteko neska-mutilentzako izango dira udako tailerrak, eta uztailearen 2tik 30era egingo dituzte. Izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko, eta maiatzaren 14ra arte eman ahalko dute izena interesa daukatenek.

Umeen aisialdia "hezitzailea eta dibertigarria" izatea da tailerren helburuetako bat

Ibarretxe kultur etxean edota udaletxean aurkeztu daiteke izen-emate orria. Matrikularen zenbatekoa, berriz, bankuaren bidez ordaindu behar da. Herrian errol-datuta daudenentzat eta Maizte-giko ikasleentzat 194,75 euro; eta, gainerakoentzat 292,12 euro. Onartutakoen zerrenda maiatzaren 24an argitaratuko dute. ■ A. B.

25 postugaz abiatu du bidea Kale Azokak

Urkiola Landa Garapen Elkartegaz batera eratu du udalak; hileko 1. eta 3. eguenetan izango da

Iurretarrek merkatua izango dute hamabost egunean behin: Kale Azoka. Hileko lehenengo eta hirugarren eguenetan egingo dute, Frai Juan Askondon eta Dantzarin, 09:00etatik 13:30era. Urkiola Landa Garapen elkartegaz batera sortu du udalak. Merkataritza eta ostalaritza jarduerari bultzada handiagoa ematea lortu gura dute Kale Azokagaz, herrigunea "suspertzeko".

Totorikaguena: "Erakargarri egin dezake herria, giroa sortu. Horregatik, kalitatea lehenetsi dugu"

Iñaki Totorikaguena alkateak gaineratu duenez, inguruko baserritarren produktuen kontsumoa ere sustatu gura dute. 25 postu egongo dira: hamabost, oihala eta telekin, eta beste hamarrak, ber-

toko eta inguruko baserritarren produktuekin.

Alkateak dioenez, orain herrian dagoen komertzio eta ostalaritza establezimenduekin "osagarria" izango da azoka. Oihala postuetan, arropak, kirola egitekoak, oinetakoak, bitxiak edota etxerako osagarriak egongo dira. Baserritarren produktuak, Abadiño, Mallabia, Zornotza, Durangotik ekarritakoak izango dira: ortuaria, fruta, ogia, sagardoa, txakoliña, ezti eta gazta.

"Beste kolore bat"

Herriari "beste kolore bat" eman diezaikeela uste du alkateak: "Erakargarriago egin dezake herria, giroa sortu. Horregatik, kalitatea lehenetsi dugu, postu kopurua barik. Inguruetatik etorritakoek gure merkataritza eta ostalaritza ezagutzeko aukera izango dute". Harrera ona izatea espero dute. ■ A. B.



Kale Azokak bisitarien jakinmina biztu du lehen egunean. A. B.

Goiuriako ibarbideen auzia argitzeko galdetegia prest dago

Alkatearen kontrako errefusatzetintzidentziaren prozedura aurrera doa

Lukupeko Troka eta Luku-Txiki ibarbideak (Luku-Baso S.A.) lurrez betetzeko lizentzia aprobetxatuta izan diren ustezko lege kanpoko jarduerak argitu guran pauso berri bat eman du udalbatzak. Horretara, eta Goiuriako kofradiak Iñaki Totorikaguena alkatearen kontra aurkeztutako errefusatzetintzidentziaren barruan, alkateak eta onartutako lekukoek erantzuteko galderak onartu dituzte.

Iazko ekainean eta uztailean baimen barik ehunka kamioien edukia isuri zela salatuzuten Goi-

Alkateak eta onartutako lekukoek erantzuteko galderak onartu dituzte

riako kofradiakoek, 2009ko lurjausiak sortutakoak konpontzeko sarbide-pistaren "legez kanpoko" obratarako baimena aprobetxatuz; 2006tik ezin zitekeen ezer isuri. Jarduera ez zutela eten ezta zehapen espedienterik agindu

arrazoituz dute kofradiakoek errefusatzetintzidentzia tramitera eroateko.

Lukupeko Troka eta Luku-Txiki ibarbideen betetze egitasmoari buruzko espedientean, 2007tik ibarbideotako mugimenduei buruzko txostena batzea ere onartu dute udalbatzarrean. Txostenean jasotakoak baino ez dira onartutako errefusatzetintzidentzia prozeduran. Kofradiak aurkeztutako frogak gehienak baztertu dituzte. Hori berretsi dute EAJ, PP eta PSE-EEk; Bilduk ez. ■ A. B.

ZALDIBAR

Piboteekin aparkalekuak erregulatu gura dituzte

Haurreskola sarrera inguruan, Munibe kalean eta Euskal Herria kalean ipini dituzte piboteak

"Behar ez den lekuan aparkatzen duten gidariekin arazo larria geneukan". Horregatik hartu dituzte aparkalekuak erregulatzeko neurriak, Bilduren udal gobernua azaldu duenez. Munibe eta Euskal Herria kaleetan eta

Haurreskolaren sarrera inguruan ipini dituzte aparkatzea debekatzeko piboteak.

Jaietarako kartela

Bestalde, uztaileko jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko, lehiaketa antolatu du udalak. Maiatzaren 25 artekoa da epea, eta 250 euroko lehenengo saria eta 150eko bigarrena banatuko dituzte, eta baita hamalau urte-tik beherako saria ere. ■ I. E.

Bildu: "Behar ez den lekuan aparkatzen duten gidariekin arazo larria geneukan"

NACEX

San Roke, 12 behe (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62
Mug.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es

Informazio orokorra: 900 100 000

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behe
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrioren aukera onak

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02



PERU: BIDAIA NATURALA ETA KULTURALA TITICACA LAKUA MACHU PICCHU OIHAN TROPIKALA

Irteera: Abuztuak 15, Bilbao-Madrid-Lima Helduera: Abuztuak 28 Lima-Madrid-Bilbao
Apuntatu 94 465 75 77 telefonoan edo info@bagoaz.com helbide elektronikoan

Abuztuak 15 MAD-LIMA:

Aireportutik hotelera zerbitzu pribatua. CITY TOUR LIMAKO HIRITIK.
Hotel El Tambo Perú-n ostatua.

Abuztuak 16 LIMA-PUNO:

Hoteletik Limako aireportura zerbitzu pribatua. Juliacara bidaia.
PREINCAS DE SILLUSTANI HILOBletara bisita.
Hostal Plaza Mayor-en ostatua (gosaria barne).

Abuztuak 17 PUNO:

UROSen IRLA eta AMANTANI (TITICACA LAKUA). Zerbitzu pribatua.
Hostal Plaza Mayor-en ostatua (gosaria eta bazkaria barne).

Abuztuak 18 PUNO-CUZCO:

Punoko hoteletik autobus geltokira zerbitzu pribatua.
WONDER PERU PUNO-CUSCO AUTOBUS TURISTIKOA.
Bazkaria bertako jatetxe batean. Autobus geltokitik hotelera zerbitzu pribatua.
Hotel Prisma-n ostatua (gosaria barne)

Abuztuak 19 CUZCO:

CITY TOUR eta INGURUKO RUINAK. Zerbitzu pribatua.
Hotel Prisma-n ostatua (gosaria barne).

Abuztuak 20 VALLE SAGRADO-MACHU PICCHU:

PISAC MERKATUA & OLLANTAYTAMBO. Bazkaria bertako jatetxe batean.
Ollantako geltokian trena Machu Picchura. Hostal Presidente-n ostatua (gosaria eta bazkaria barne).

Abuztuak 21 MACHU PICCHU-CUZCO:

Huayna Picchu-ra sarrera. MACHU PICCHU-n BISITA.
Bisita gidatua eta bazkaria Machu Picchu Sanctuary Lodge-n. Zerbitzu pribatua.
Poroy-ko tren geltokitik hotelera zerbitzu pribatua. Hotel Prisma-n ostatua (gosaria eta bazkaria barne).

Abuztuak 22 CUZCO:

EGUN LIBREA. Hotel Prisma-n ostatua (gosaria barne).

Abuztuak 23 CUZCO-PUERTO MALDONADO:

Hoteletik aireportura zerbitzu pribatua. Puerto Maldonadora bidaia.
CORTO MALTÉS (1. eguna): Ur garraiorako tramiteak eta hiria bisitatu.
Puerto de Capitaniatik gure Lodge-ra (Madre de Dios ibaia). Trekking.
Gaueko paseoa ibaian zehar. Corto Maltes-en ostatua (gosaria eta afaria barne).

Abuztuak 24 PUERTO MALDONADO:

CORTO MALTÉS (2. eguna): 5:30etan loroen collpa-ra bisita. 08:00 Gosaria eta denbora libre.
Isla de los Monos-era espedizioa eta trekking-a. Helmuga: Sandoval lakua. Kanoa. Corto Maltes-en ostatua (mantenu osoa).

Abuztuak 25 PUERTO MALDONADO:

CORTO MALTÉS (3. eguna): Gosaria eta Lodge Corto Maltés-eko igerilekuan bainatzeko denbora libre.
Ibaitik bidaia bertako komunitate batera. Gamitada lakua inguratuz Chacra batera bisita eta bertako janaria dastatu.
Corto Maltés-en ostatua (mantenu osoa).

Abuztuak 26 PUERTO MALDONADO-LIMA:

CORTO MALTÉS (4. eguna): Gosari ostean hirira buelta eta aireportura. Limara hegaldia.
Aireportutik hotelera zerbitzu pribatua. Hotel El Tambo Perú-n ostatua (gosaria barne).

Abuztuak 27 LIMA:

EGUN LIBREA. Hotel El Tambo Perú-n ostatua (gosaria barne).

Abuztuak 28 LIMA:

Hoteletik Limako aireportura zerbitzu pribatua (gosaria barne).

* 16 pertsonako taldeak

* Prezioa: 3.300 euro/pertsonako. Segurua barne. Bakarkako gehigarria: 200 euro



www.bagoaz.com



FINALERAKO AZKEN AUTOBUSA

Irteera: maiatzak 25 07:45 Matiena, 08:00 Durangon, 08:30 Zonotzan
Buelta: egunean bertan goizaldeko 03:00etan (10 egun apuntatzeko)

40€

ATXONDO

Abal-emailea aurkitu duela jakinarazi dio Norvisak udalari

Barraskiko etxebizitzaren proiektua berriro martxan egon daiteke laster



Barraskiko lanak 2010ean geldiarazi zituen udalak, Norvisak zorrak zituela argudiatuta.

IZURTZA

Jaien antolakuntzan parte hartzera deitu du udalak

Irailen ospatuko dituzte Erdoitzako Andra Maria jaiak, eta antolatzekeo batzarrak egiten hasi dira apirilean. Lehenengo batzar horretara herriko elkarteak (Argintxu,

jubilatuaren elkarte...) eta norbanakoak batu ziren, zortzi bat lagun guztira. Dena den, udal ordezkariak ahalik eta jai parte-hartzaileenak izatea gura dute: "Herriarrei

hurrengo batzarrera joateko dei egiten diegu, ideia berriak eztaba-datu eta ahalik eta jai egitaraurik zabalena lotzeko". Hurrengo batzarrera maiatzaren 2an izango da, astelehena, 19:30ean, udaletxeko batzar gelan. Lehenengo batzarra eman-korra izan zela azaldu dute udal ordezkariak: "Ideia interesgarriak egon ziren". ■ J. D.

MAÑARIA

Auzobideak argiztatzeko araua onartu du udalak

Farola berriak kontsumo baxukoak izango dira

Udalak auzoetako argiteria publikoaren zerbitzua erregulatzekeo ordenantza onartu du. Etxe bakarrak diren kasuetan, eraikineko sarrera nagusiko auzobidea argituko dute. Baserri nukleoa denean,

nukleoaren sarrerako auzobidea argiztatzea proposatu dute.

Udalak ipini eta mantenduko du argiteria. Salbuespena ezarri dute: "Sortu berri diren etxeetakoak izan ezik; izan ere, argi-puntuak titularren kontura joango dira". Herrian erroldatutako en eremuan, udalak berak lagunduko du diruz kontsumoa. Farolak, kontsumo baxuko LED bonbiladunak izango dira. ■ M. O.

Herrian erroldatutako en eremuan, udalak lagunduko du diruz kontsumoa

Arrankariak askatuko dituzte errekan

Foru Aldundiaren ekimenez, milaka arrain askatuko dituzte Bizkaiko erreketan. Horien artean, Mañaria erreka ere aukeratu dute. Azaldu dutenez, arrankari autoktonoak ekarriko dituzte datozen asteetan.

Bizkaian ia 25.000 amurruin jaregitea da Aldundiaren asmoa. Horretaz gainera, udazkenean 9.000 izokin edo barbarin ere askatuko dituzte Lea, Karrantza, Barbaduneko ubideetan. ■ M. O.

MALLABIA

Autobusaren ordutegi aldaketatik kexatu da udala

Eusko Treneko autobus ordu-tegi berriak, zerbitzua nabarmen kaltetu duela kritikatu du udalak. Orain arte Mallabitik ordu erdiro ateratzen ziren autobusak. Mendarora zihoan bata, eta beste Ondarrura. Apirilaren 16an ordutegi berria martxan jarri zutenetik, hogeit hamar minutuko tartean bi autobusek irtetzen dute herritik, eta beste 40 minutuan ez dago zerbitzurik Ermura, Eibarrrera edo Mendarora joateko, azaldu dutenez. "Autobus guztien ibilbidea Mendaron bukatzen da eta Ondarroarainoko zerbitzua, guztiz kendu dute. Orain arte ordu geneukan kostalde-ra joateko aukera, orain, behin ere ez".

Irtenbidea proposatu dute udalekoek, Ermutik hamargutxitan irteten duena eta Ondarruraino laurden gutxitan doana, biak Mallabitik ateratzea. Bi autobusak Mallabitik abiatzen ziren, bidaiaririk hartu ez arren. ■ J.G.

GARAI

Herriko jaiak antolatzen hasi dira Trumoitte elkarteak

Aurtengo herriko jaiak begira lanean hasi dira dagoeneko Trumoitte kultur elkarteak. Hilabete pasatu da lehenengo batzarra egin zutenetik, eta eguaztenetan batzeko asmoa dute, hamabost egunetik behin.

Herri-afaria eratzeari garrantzia eman diote, jende asko batzen duelako

Uztailaren 24tik 31ra ospatuko dituzte jaiak Garain. Iaz abuztuaren 1ean amaitu zituzten, baina aurtengoz dituzte luza-tuko, azaldu dutenez. Santiago eguna aste barruan tokatzeak eragina izango ei du egitarauan. Musika taldeak kontratatzeak denbora eskatzen duela eta zeregin horretan murgilduta dabil-tza. Gainera, herri-afaria eratze-ri garrantzia eman diote, jende asko batzen duelako. ■ M. O.

JABIER MUGURUZA

maiatzak 6, 20:00etan

Sarrera: 8-10 euro



AURRESALMENTA:
www.plateruenasarrerak.eu eta Plateruenan



Durangaldean labur

Barne garapenari buruzko tailerra

Elorrión, Lourdesko Ama ikastetxean, barne garapenari eta programazio neurolinguistikoiari buruzko tailerra emango dute. Helburuak hauek dira: "Sakonean norbera izatea eta giza hartu-emanak hobetzea". Maiatzaren 12an eta 13an izango da tailerra. Izena emateko: 658 726 654.

Munduko 50. jatetxe onena

Axpeko Etxebarri jatetxeak munduko jatetxe onenen zerrendan 50. postua lortu berri du. Nazioarteko 800 kritikari gastronomikok iritzia eman eta gero, *Restaurant* aldizkariaren 50. jate-txe onenen San Pellegrino zerrendan sartu da Etxebarri.

Nagusientzako ariketak uretan

Berrizko igerilekuetan, nagusiek uretan ariketa fisikoa egiteko jarduerak egiten hasi dira. Eguaztenetan 10:30etik 11:30era egiten dituzte saioak, eta ez da derri-gorrezkoa igerian jakitea. Animatuz gero, izena edonon eman daiteke jubilatuen etxean.

ELORRIO

Leiz Miñotako Plan Berezia urtebetean egingo du udalak

Lurjabeategaz hitzarmena sinatu du udalak, EAJk eta PPK babestuta

Leiz Miñota auzoko Plan Berezia diseinatu du udalak. Korporazioak hirigintza antolamenduaren gaineko hitzarmena sinatu du auzoko lurjabeategaz, eta plana urtebetean egiteko konpromisoa hartu du.

Iaz onartutako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) landa guneentzako eskubide urbanistikoak zehazten ditu. Hamasei etxebizitza daude Leiz Miñotan, eta zortzi gehiago egin ahal dira. Udalagaz hitzarmena sinatu duen jabeak, hiru etxebizitza egin ahal ditu, bi eraikitzen. Udalak lurjabe horren 12.000 metro koadroko lurra jaso du. Hitzarmenak, lurra jasotzeko epea aurreratzea dakar, Plan Berezia egin ahal izateko. Urbanizazioak, ura eta argiaren instala-

Hamasei etxebizitza daude Leiz Miñotan, eta zortzi gehiago egin ahal dira

Hitzarmenak, lurra jasotzeko epea aurreratzea dakar, Plan Berezia egin ahal izateko

zioak edota eraikin berrien koka-pena zehaztuko dituzte Plan Berezian, besteak beste.

Bildu: "Onura handiegia" EAJk eta PPK alde bozkatu dute, baina Bildukezkoa eman dio hitzarmenari. Xabier Orbegozoren ustez, jabeak "onura handiegia" ematen

zaio, eta "eskubide urbanistikoak baldintzatzen dira". Bestelako distribuzio baten alde agertu da, eta auzotarren iritzia ez dela kontuan hartu kritikatu du. Bestalde, jabea auzoan granja bat zeukan enpresa bat da, eta eraikin hori erortzeko zorian dagoela eta, arriskutsua dela dio Bilduk. Ahal den arinen botatzeko konpromisoa eskatu dio gobernu taldeari.

Granja botatzeagaz, ados Joseba Mujika alkateordea ados agertu da, erortzeko dagoen granjaren kasuan, eta eraisteko konpromisoa hartu du. Baina, gaitzaren, erantzun du eskubide urbanistikoak HAPOn ezarritakoak direla, eta auzotarren iritzia *Denon artean* parte-hartze prozesuan hartu zela. ■ M. Onaindia.

ABADIÑO

Mende oso bat bete du Lorenza Plaza abadiñarrak

Omenaldia egin diote agintariek eta bere lagunek



Jubilatuak etxeko ekitaldia; hainbat opari jaso zituen Plazak.

Mende oso bat bete du. Ehun urte betetzeko bere sekretua, lana "gogor" egitea izan dela esan zuen Lorenza Plazak. Apirilaren 30ean, Traña-Matienako jubilatuen etxean jaso zuen Lorenza Plazak senide eta lagunak omenaldia. Udalaren eta Bizkaiko Aldundia- ren ordezkariak ere parte hartu zuten ekitaldian.

Hiru lore-sorta, plaka eta oroigarria jaso zituen Lorenza Plazak omenaldi horretan.

Ekitaldi amaieran, Traña-Matienako jubilatuen elkarteko bere lagunek urtebetetze pastela ere eskaini zioten omenduari. Talde Batuak dantza taldekoek emenaldia eskaini zuten, eta luntxa egin zuten gero. ■ I. E.

Parte-hartze handiagaz hasi dira San Prudentzio jaiak

Hiru egun barru, domekan, Donien Atxa kendu arte, gaur, bihar eta etziraiko programazio zabala egongo da Traña-Matienako jaietan.

Joan zen asteburuan eguraldiak ez zituen ospakizunak larregi lagundu. Hala ere, balorazio positiboa egin du Jose Luis Navarrok alkateak, orain arteko egunez: "Urtero bezala, herritarren parte-hartze handia egon da". Antolaturiko ekitaldiak ondo joan dira orain arte, alkateraren berbetan. "Aparteko arazo barik".

Hainbat hiri-altzari kaltetu dituzte egunotan: zaborrontziak eta jardinerak

Hala ere, hainbat hiri-altzari kaltetu dituzte egunotan: zaborrontziak eta jardinerak apurtuta agertu dira. Etxebizitza baten atarian eta igogailuan ere kalteak eragin dituzte. ■ I. E.

JAIETAKO ARGAZKIAK

MATIENA

argazki gehiago: anboto.org

BERBAZ>

“Ekonomia komunitatearen zerbitzura egon behar da, merkatuen zerbitzura egon ordeztu”

‘Krisiaren irtenbidea: ekosoziofeminismoa’ berbaldia emango du Juradok, gaur, 18:30ean, Durangoko Andragunean

Nekane Juradoren berbetan, egungo krisia ez da ekonomikoa bakarrik. Amalurra eta balore femeninoen bidea hartuta aldaketarako pausoak emateko premia ikusten du. Egungo eredu ekonomikoa guztiz aldatu, eta auzolana aldarrikatuko du gaurko berbaldian, Andragunean.

‘Ekosoziofeminismoa’ zer den labur azaldu ahal duzu?

Bizi dugun krisia ez da ekonomikoa bakarrik; estrukturala da. Lehengaien krisia dago, energiarena, osasunarena, genero hartu-emanena, baloreena... Horregatik, erabat berria izango den eredu bat behar dugula pentsatzen dut. Amalurra errespetatuko duen ereduia izan behar da, eta sozialista, zentzu sozialean; ekonomia komunitatearen zerbitzura egon beharko da, merkatuen zerbitzura egon ordeztu. Horretarako, balore batzuk behar dira: elkartasuna, babesaren ekonomia, baztertzaila izan beharrean inklusiboa izango dena... Balore horiek femeninoak dira.

“Bizi dugun krisia ez da ekonomikoa bakarrik; estrukturala da”

Balore horiek krisian badaude, egoerari buelta emateko aldaketa handia egin beharko da.

Erradikala izan behar da. Gertatzen dabilena ez da krisi ekonomikoagatik gertatzen; zibilizazioaren krisiagatik baino. Oraindik aurre-krisian gaude, ez dugu krisiaren hondoa jo, eta honek 1929koa gainditu dezake. Horrez gainera, sistema globala lorpen sozialak deseuztatzen dabil, eta jendea horretaz konturatzen hasi da. Merkatuak Txina lako herriein dabilta lehiatzen, eta han ez dute ongizate estatistik. Ba, han gutxiengoak ipini barik, hemen kentzen dituzte eskubideak. Egoera ez da konponduko merkatuek nahikoa irabazten dutenean, burtsa igotzen denean edo Barne Produktu Gordina (BPG) igotzean. Ematen du lana sortzeak eta gizarte babesa edukitzeak ez daukala garrantziarik. Aldaketak iraultzailea izan behar du, bestela sistema honen esklabu izaten jarraituko dugu.

Hazkunde ekonomikoa baino, zentzuagaz eroandako desazkundera proposatzen duzu. Daroagun bizitza erritmoagaz jarraitzeko ia hiru Euskal Herri beharko genituzke: beste herrietako energia errekurtoak erabiltzen ari gara, hondakinak beste leku batzuetara eroaten ditugu... Ezin dugu muga barik hazten jarraitu. Lurra-



“Barne Produktu Gordina igotzea ez da bizitza kalitatea hobetzea; AEBtan arma industriagaz igotzen da BPG”

gaz dugun oreka zaindu behar dugu.

Ekonomiaren osasuna baloratzeko BPG hartzen da kontuan. Bada, Prestigen garbiketa lanek diru asko mugitu zuten, eta horrek BPG igo zuen. Errepideak egoera txarrean badaude istripuak egoten dira, eta txapisten, lora saltzaileen eta funerarien gastuekin BPG igotzen da. BPG igotzea ez da bizitza kalitate ona edukitzea. AEBtan arma industriagaz igotzen da BPG. Ongizate soziala sortzeko jardueren bidez igo beharko litzateke BPG. Dirua hor dago; bankuei dirua ematen

jarraitu edo hezkuntzan inbertitu, horiek aukera politikoak dira.

Murrizketak osasuna eta hezkuntza lako arloetan egiten dituzte. Arlo horiek ez direlako errentagarriak?

Hori esaten dute, baina hain justu errentagarriak direlako pribatizatu gura dituzte. Hasteko, esaten digute sektore publikoan zor handiak daudela, eta gero, AEBtan legez, sektore pribatuak bete dezala paper hori. Jendeak beti beharko du osasun zaintza eta formazioa, eta badakite familiak hori lortzeko ordain-

Nekane Jurado •

- Ekonomialaria
- Egoera ekonomikoari buruz hainbat liburu argitaratu ditu

“Etxera begiratu behar da, komunitatera, eta bizitza premiei erantzun”

tzeko prest daudela. Valentzian eta Madrilén badabilta horrelako pausak ematen. Momentu historiko honen gauzarik onena da kareta kentzen dabilta. Gerra Hotza amaitu zenetik, ongizate estatua deusezten ibili dira, eta krisiak azkartu egin du prozesu hori. Duela urteak lege bidezko prekarizazioari buruz berba egiten genuenean jendeak ez zuen ulertzen. Orain hori azaleratu egin da, eta horregatik, aldaketarako egoera hobe dago.

Krisiak emakumeengan eragin handiagoa duela esan duzu inoiz. Zer ekarpen egin diezaioke feminismoak egoera honi? Baloreak: elkartasuna, babesa, lan komunitarioa... Balore horiek denak femeninoak izan dira. Etxera begiratu behar da, barnera, komunitatera, eta bizitza premiei erantzun. Gure ama eta amamek gauza gutxiagaz guztien premiak asetzeko lana egiten zuten, eta emakumeek beti eduki dituzte baliabideak premiei beste era batera erantzuteko.

Praktikan, ze ekintza proposatzen duzu? Auzolana. Baserrietan beti izan den hori herri eta hiri gunetara zabaltu behar da. Elkarbanatu eta gauzak beste era batera egiteko ekimen ugari sortu dira. Denboraren bankua lako egitasmoak, komunitatearen premietan komunitate osoa inplikatzeko moduak dira. Heldu gura dugun eredurak heltzeko bidean laguntzen dute horrelako ekimenek.

Baikorra zara? Eredua hau aldatzeko modurik ikusten duzu?

Aldaketa horren zantzuak nabaritzen hasi naiz hainbat lekutan. Ez dakit zelan, baina uste dut eredu berrira bultzatuko gaituen zerbait etorriko dela. Ez dakit langabeziak zifra handiak gaudituko dituen, lurrikara bat edukiko dugun edo petrolioaren prezioa bikoiztu egingo den... Krisi guztiak zabalik daude, eta eurretako bat beste guztiak azaleratzeko detonagailua izango da. Gazteengan eta pertsona nagusiengan aldaketa horretarako gogo handia ikusten dut. Auzolana eta baloreak landu behar dira. ■ A. Ugalde

ALMACENES ARRASATE



TIEN 21

Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



7

URTEKO BERMEA FAGOR  PRODUKTU GUZTIETAN



1200
b/min
6 kg

A++ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-6012

299 € FAGOR 



1200
b/min
7 kg

A++ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-7212X

399 € FAGOR 



1200
b/min
8 kg

A+++ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-8212

399 € FAGOR 



LEHORGAILUA
SF-84CE

390 € FAGOR 



ONTZI-GARBIGAILUA
LVF-13

330 € FAGOR 



ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13X
375 € FAGOR 



LABEA 6H-760AX
435€ FAGOR 



INDUKZIOZKO PLAKA IF-3BS
365 € FAGOR 



1850
X
600
X
600

NO FROST

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA FFJ-6725

545 € FAGOR 



2000
X
600
X
600

NO FROST

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA FFK-6835X

625 € FAGOR 

maiatzean **%20** arteko* deskontuak

elektrogailu
bakoitzagaitik
FAGOR markako
sartaia opari

FAGOR
edesə 

 **BOSCH**
Balay

AEG
SIEMENS

* Beherapena duten produktuetan izan ezik.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.



ETXERAKO
ZERBITZUA.
ZAHARRA
JASOKO DA

MERKEFAGO
TOPATUZ GERO
DAGOEN ALDEA
BUELTATUKO DA

GUSTURA GERATU
EZEAN DIRUA
BUELTATUKO
DIZUGU

+dendak-EKO
"DURANGO"
TXARTELA
ERABILGARRI

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Euskaraz bizi gura dugulako...

Udaltzainarengana laguntza eske jo, saiatu eta ezin. Udalaren idazkariarenera paper kontuak egitera hurreratu, saiatu eta ezin. Herriko politikariarengana proposamen bat luzatzera gerturatu, saiatu eta ezin. Gura, saiatu eta ezin. Ezin euskaraz jardun, ezin euskaraz bizi. Euskararen herrian, erdaraz.

Eta zeregiten du udalakegunerokotasunean herritarroko euskaraz jarduneko dugun ezintasunaren aurrean? Zer egiten du euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatzeko? Ahoa berba potoloz betetzen dute udal-agintariak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Euskararen Udal Araudia eta Udal barnerako Euskara Plana badirela esanez. Baina, zer dago horien guztien atzean? Txakurraren putza! Plan eta sasi-araudi horiek guztiek Euskal Herriko berezko hizkuntza den euskara antzokietako apaingarri legez azpiratua izatera kondenatzen dute. Izan ere, indarrean dagoen erdararen menpeko hizkuntza-politikan oinarritzen dira; jaietako urteroko bertso saioa eta euskarazko antzerkiak euskara sustatzeko planean jasotzen dituen hizkuntza-politikan. Negargarria.

Euskaraz bizi ahal izateko, udalak ere behar du izan euskaldun. Eta, gure iritziz, bai udala eta bai herria berreuskalduntzeko, euskarari lehentasuna eman, eta erdararekiko asimilazioa gaindituko duen hizkuntza politika burujabea behar dugu. Beraz, esan dagigun ozenki: euskaraz bizi gura dugulako, hizkuntza-politika burujabea!

Durangoko Euskal Herrian Euskaraz

Martxoak 31.

Ibilbide kaltetu baten kronika.

Udaberriko eguraldi zoragarri batez agurtu gintuen 2012ko martxoaren 31k. Asteazkenean zehar hainbat ekintza egin ziren Durangon, eta gogora ekarri ziguten 75 urte arinago gertatu zen bonbardaketa. Zilar Asteazkenean parte hartu genuen kultura eragileok mota askotako euskarriak erabili genituen, historiako egun latz hura irudikatzeko: komikiak, pintura, bideoak, antzerkia, poesia, bertsoak, musika...

Durangoko bonbardaketa gogoratzeko hainbat egitarau antolatu ziren. Zilar Asteak, beste batzuen aldean, aurrekontu apala izan zuen. Dena dela, goazen Zilar Astearen barruan egin genuen ibilaldia errepasatzera.

Ibilaldi horretan, Durangoko kultur eragileak 1937ko egun hura eta hurrengo urteak gogora ekartzen saiatu ginen. Kurutziazako Kurutzia, Santa Susana, San Agustin, Nevers, Ezkurdi eta Andra Mariako elizpea aukeratu genituen. Eraztun antzeko bat Durangoko alde zaharrean. Kanpai hotsak entzuten dira; udal agintariak hilerrian daude, eurek antolatutako omenaldia has-teko prest, herritik eta herritarrengandik urrun.

Herriko kaleetan, ordea, festa giroa da nagusi. Une horretan ezerk ez du gogora ekartzen 75 urte arinago gertatu zena. Konturatu barik, 18:15. Ibilbidea hasteko ordua gainean dugu. Baina, itxaron, duathloi frogara dago ordu honetan. Batzuen iritziz, bi ekintzak 'osagarriak' dira, baina gure ibilbidearen abiapuntura iristeko, korrikalariak ixkin egin, petodun bidezainak saihestu eta zintak zeharkatu behar ditugu.

Iritsi gara eta gogoz gaude. Txori erraldoi bat hegoak astintzen eta danborjolearen erritmoa. Hasi da ibilbidea eta mezu bat daroa: justizia, egia eta erreparazioa. Bidaia emozioz beterikoa da; hor goaz, duathloiko korrikalarien artean. Kafka. Surrealismoa. Santa Susana, San Agustin, Nevers... Gero eta herritar gehiago txoriaren eta danborjolearen atzetik. Gero eta biziago daroagun mezua. Ezkurdi mahaiak, hesiak eta jendea. Jende gainezka dago. Plazaren albo batean, pantaila txiki bat. 1937ko egun hartako lekukoak ari dira berbetan. Plazan bildutako batzuk, testigantzek eragiten duten negar gogoa ezin eutsi. Beste batzuk arratsaldeko aperitiboa hartzen, terrazetan eroso. Iru-di eskizoidak.

Ibilbidea bukatzeaz dago. Danborjoleak eta txoriak azkenen- go indarrak gorde dituzte Andra Mariako elizpean sartzeko. Jende goraino dago. Aulkiak beteta. Alboko terrazak ere bai. Has- tera doa azken ekitaldia.

Poza sentitzen dugu ibilbidea burutu dugulako. Amorrua eta etsipena ere bai, zelako baldintzatan lan egin behar izan dugun konturatuta. Eta galdera hauek ditugu egiteko:

-Ibilbidea eta Duathloia ekintza osagarriak ziren?

-Bonbardaketaren 75. urteurrenak nahasmen hau merezi zuen?

-Ikusirik egin den lan guztia, Udalaren Kultura, Kirola eta Gaztediko sailak ez zuen beste ardura edo interesik agertu behar?

-Inork imajinatu dezake Gernikan horrelakorik?

Hurrengo ekimen batzuetarako ekitaldi bakoitzaren garrantzia herri ikuspegiarekin adostu eta modu egokian koordinatu ahal izango dugulakoan: baziren, bagara, memoria da lotura, ezin dogu ahaztu ta ez doguz ahaztu gura.

Barbaro taldea, Durango 1937, Gerediaga, Karrika eta Kriskitin

Klik batean @



Txapligu kaxak

Igandean, arratsaldeko zazpitan Matienan aterata dago argazki hau, eta bertan larunbat gauean botatuko txapliguen kaxak, kableak barne, ageri dira. Uste dut norbaiten ardura izango dela berauek erretiratzea. Baten bat eztanda egin gabe geratu ezkerro, gertatuko litzatekeenari buruz, pentsa dezatela ezta- darazi dituztenek.

Ibon Lizundia Leturiaga - Abadiño

Sei hankako mahaia

Dani Maeztu
Aralar



Politikariok kale!

Honezkero denok izan dugu Iñigo Cabacasen heriotzaren berri. Zoritxarrez, ez dugu benetan zer gertatu zen jakingo, ez behintzat iturri ofizialetatik. Han ez zen ezbehar bat gertatu; polizia kale hartan kargatzeko zeukan agindua ez zen ezbeharra izan; gomazko pilotak jaurtitzeko dituzten eskopetak patruila guztietan eramatea ez da ezbeharra; eta erantzukizun politikoa dutenak autopsia bat egongo zela jakin arte publikoki ez agertzea ere ezin da ezbehar- tzat hartu. Horiek guztiak alde- zurretik pentsatutako erabakiak dira, eta fakultatean irakatsi zigu- ten moduan, borondatea tartean sartzen denean, ezin da ezer ezbehar- tzat hartu. Bake garaian, gerran egongo bagina bezala jar- duten den polizia izateak hausnar- ketarako bidea eman behar ligu- ke.

Gertaera horren ondorioz, Durangon, beste garai baten ohi- koagoak ziren pintada mehatxa- garriak agertu ziren, PSE eta Are- sen aurka. Horiek ere salatu egin behar direla uste dugu. Pintadak gaitzesteko EAJren udal gober- nuak Bozeramaileen Batzordea deitu zuen, adierazpen bateratua hitzartu guran. Baina EAJk, PSEk eta PPk adostu zuten testuan auzi honen hanka bakarra aipatzen zen, alegia, pintadak gaitzesten ziren bai, baina Cabacasen herio- tzaren nondik norakoak aipatze- ri muzin eginez. Erabilitako argu- dioa, gainera, herrenaz: Duran- gon gertatutakoa soilik aipatu behar omen zen. Ez zuen ba udal- batza honek, Aralarrek barne, Madrilgo T4ko atentatua gaitze- tsi? Hurbiltasun geografikoaren argudioa erabiltzen bada eta Madril gertatutakoa gaitzestu bazen, orain zergatik ez da Bilbon gertatutakoa gaitzesten?

Ez da geografia kontua. Urliak ez zuen zaltan jarri gura izan urtetan eratu duen alderdi- poli- zia; eta Sandiak Aresen hipokre- sia eta gezurak estali gura izan ditu. Emaizta: hiru adierazpen ezberdin eta, garai berrietan, ira- ganeko mezuak. Politikariok kale!

Gomazko pilotak jaurtitzeko dituzten eskopetak patruiletan eramatea ez da ezbeharra

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurretza
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko maiatzaren 4a
10. urtea - 457 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretti Alonso,

Amaia Huarte, Itxaso Altuna

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onandia,

Amaia Ugalde.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.

Argazkilariak: Kepa Aginako,

Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokultura

KULTURA[>]

PAULO LAMEIRO > MUSIKARIA

“Helduok gaitasun murritza dugu umeei ezer erakusteko”

Portugalgo Pousos herriko SAMP Arte Eskolaren zuzendaria da Paulo Lameiro. Urtebete arteko umetxoentzako eta musika irakasleentzako tailerra eskainiko du Durangoko Musika Eskolan

Asteburu honetan Bilbora eta Durangora zatoz. Zelako emanaldiak izango dira?

Emanaldi guztiz desberdinak izango dira Bilboko eta Durangoko. Bilboko Orkestra Sinfonikoak gonbidatuta, Euskalduna Jauregian egingo duguna umeentzako kontzertu bat izango da. Bigarren aldia da hau Bilbora goazena. Prokófiev, Messiaen eta Stravinsky konposatzaileen lanak hartuko ditugu oraingoan oinarritzat, XX. mendean sorturiko doinuak. Durangon egingo duguna, aldiz, tailer bat izango da. Musika irakasleak umeekin egin daitekeen lanaz kontzientziatzeko helburuagaz jardungo dugu.

“Musika irakasleak umeekin egin daitekeen lanaz kontzientziatzeko helburuagaz jardungo dugu”

Zer doinu eskainiko dituzue?

Musika klasikoa da proiektuaren oinarria, baina jazz musika, inprobisazioa eta musika tradizionala ere asko jotzen dugu. Umeei eskaini ahal diegun gauzarik txarrena umeentzako musika deitzen duguna da, gure ustez, eta beti gogoan izaten dugu hori. Musika garaikideagoagaz jardungo dugu, horregatik, Bilboko emanaldian.

Zelan antolatzen duzue agertokia?

Eszenatokian publikoa ere egoten da. Ez dago palkorik edo jesarlekurik. Musikariak erdian ipintzen dira, eta euren inguruko koltxonetan jesartzen dira gurasoak eta umeak. Kontzertua hasi aurretik oso oinarritzko arauak ematen dizkiegu: “Ez ditugu umeak txalo jotzen ipiniko, eta inor ez da hasiko umeei ezelako azalpenik ematen, konforme?”, esaten diegu. Ikasten umeak dira espezialista handienak, guk baino ahalmen askoz handiagoa daukate gauza berriak ulertzeko. Helduok oso gaitasun murritza dugu umeei ezer erakusteko.

Umetxoentzako kontzertuaz gainera, berbaldia ere eskainiko duzu Durangon.

Bai. Hamabi hilabete arteko umetxoekin egingo dugu tailerra, eta hitzaldia eskainiko dut, gero. Gure lanaren oinarri teorikoez, eta neuk eta ni bezalako profesionalak dauzkagun zalantzez ere jardungo dut.

Egunerokoan ere egiten duzu lan hain umetxiek, ala zerbait puntuala da?

Haurdun dauden emakumeekin hasten gara lanean gure musika eskolan. Zero eta bost urte arteko ehundaka ikasle dauzkagu, eta egunero ematen ditugu umetxoekin eskolak. Musika, antzerkia eta dantza uztartzen ditugu. Gure ikasleen %50ek baino gehiagok bost urte baino gutxiago dauka, eta hogeitaz urte daramagu kontserbatorioan umetxoekin lan egiten.



“Gure ikasleen %50ek baino gehiagok bost urte baino gutxiago dauka”

Zelan erantzuten dute umetxoek kontzertu horietan? Eta gurasoek?

Umeak oso ohituta daude euren bizitzetan aurkikuntza inportanteak egitera. Sei hilabeteko umetxo bat 45 minutuz aho-zabalik musika oso landua entzuten egon daiteke, eta gurasoak ohartu egiten dira. Euren umetxoak uste zutena baino konplexuagoak direla konturatzen dira gurasoak.

Adi eta geldi egoten dira umeak?

Begiak eta ahoak zabal-zabalik egoten dira umetxoak, bai, gozamina izaten da eurentzat. Batzuetan, mugimendurako bultzada izaten da musika, oinez edo katamarka ikasten dabilzan umeentzat: musikarion-gana hurreraten dira, instrumentuak ukitzen dituzte, dantza egin gura dute... Eta libre egiten dute hori guztia. Musika ez dela CD distiratsuetan, autoetako irratieta edo kutxa beltz batzuetan jaiotzen ikasten dute gure tailer hauetan umeek: musika zerbait bizia, arnasa hartzen duten pertsonen sortzen dutena dela ikasten dute.

Zelan hasi zinen honetan?

Hainbat faktoreren eraginez hasi nintzen umeekin lan egiten. Edwin Gordon AEBetako ikerlariaren lanak bultzatu nau zentzu batean alor honetan aurrera egiteko erabakia hartzea. Musikaren hezkuntzako teorialaria da Gordon, eta berak defendatzen duenez, jaiotzen garenekoa da gizakiok musikarako trebetasun gehien daukagun momentua. Hein batean berak inspiratuta sortu genuen eskola. ■ I. Esteban

Umea magalean daukan amak kontzertuko musika ez badu sentitzen, ez bazaio gustatzen, igarri egiten du umeak: amaren arnasa hartzeko edo umea eusteko moduak transmititzen dio hori guztia umeari, Lameirot baietzatzen duenez. Horregatik, helduek ere gustoko izango duten musika egiten dute *Musicalmente* izeneko saioetan. Umetxoak sumatu egiten baitu ama emozionatzen den edo ez.

“Umetxoak ez dira etorkizuneko publikoa”, diosku Paulo Lameirot, “jaiotzatik dira entzule”. Oso publiko zorrotza, gainera, musikologo portugaldarrak dioenez: “Ume batentzat jotzean ez baduzu ezer interesez korrik eskaintzen, negarrez, mugitzen edo zarataka hasiko da”.

Umeak musika eskoletara berandu ailegatzen direla uste du Paulo Lameirot. Bere ustez, oso garrantzitsua da dantza, antzerkia eta musika jaiotzatik lantzea, eta helduak umeek gauza berriak ulertu eta ikasteko duten gaitasunaz ohartzea.

Helduek ere gustuko duten musika jotzea da gakoa



BERTSOLARITZA>

Bizkaiko kanporaketetan kantatu ahal izateko txartela dago jokoan Abadiñon

Maiatzaren 11n kantatuko dute sei bertsolarik Durangaldeko saioan, eta lehenengoa zuzenean sailkatuko da

Bizkaiko 63 bertsolarik jardun dute aurten lurraldeko eskualdeetako bertsolari txapelketan. Horietariko sei dira Durangaldekoak: Garikoitz Sarriugartek, Eñaut Uruburu Lepotxok, Gorka Lazkanok, Julen Sololuzek, Ander Salaberriak eta Peru Magdalenak jardungo dute Durangaldeko finalean. Maiatzaren 11ko Abadiñoko probalekuko saioan.

Beste zazpi eskualdeetako finalak ere maiatzean eta ekainean jokatu dituzte: Enkarterrieak, Hego-Urbe, Arratia, Lea-Artibai, Uribe Kosta, Uribe Butroe eta Busturialdea. Eskualdeetako final horietako txapeldunak zuzenean sailkatuko dira Bizkaiko txapelkatak kanporaketa faserako, eta puntuazioaren arabera sailkatuko dira gaitzako bertsolariak (guztira, 30).

Eguaztenean aurkeztu zuten txapelketa, Bilbon. Besteak beste, txapelketa internet bidez jarraitzeko aukera eskainiko dutela iragarri zuten antolatzaileek aurkezpen horretan. Saioei buruzko informazioa, www.bizkaikotxapelketa.biz webgunean eskainiko dute.

Bertsozaleen parte-hartzerako, Plaza izeneko bloga sortu dute webgune horren baitan: gura duenak bideoak, bertsoak,

‘www.bizkaikotxapelketa.biz’ webgunean eta sare sozialetan jarraitu ahalko da txapelketa

argazkiak, etabar argitaratzeko aukera izango du blog horretan. Sare sozialetan ere egin ahalko da txapelketaren jarraipena.

Bertso-eskolek urtean zehar egindako lana zabaltzeko eta eskolatik plazara salto egiteko asmoagaz jardungo dute. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA

Iñaki
Etxezarraga
Musikaria



GH 2012

Izenburua ikusita, badirudi telebistako programa bati buruz idazten ari naizela, baina ez da horrela.

Aurreko bi asteburuetan, Platerue- nean, jaialdi ederra antolatu zuen Durangaldeko hainbat taldeekin, nahiz eta eszenatoki gainean eraldatuta agertu.

Mundu osoko artistak bildu ziren, batzuk berpiztuta ere! AC/DC, Elvis Presley, Lenny Kravitz, Off Spring, Amy Winehouse, Bon Jovi, Eskorbuto, Herztzainak... Izugarria horrelako kartel bat izatea. Kontzertu laburrak baina bortsak izan ziren. Jendeak ez zuen hutsik egin eta giroa bero-bero mantendu zen emanaldi guztietan zehar.

Jendeak ez zuen hutsik egin
eta giroa bero-bero mantendu
zen emanaldi guztietan

Klasiko ugari zuzenean entzuteko aukera izan genuen eta antzokia jendez gainezka ikustea ere poztekoa da. Normalean zaila izaten da publiko beroa edukitzea, baina kasu honetan lehenengo taldearen lehen akordetik hasita jaialdia amaitu arte jendea gogotsu egon zen. Askok abestu zituzten entzun ahal izan zituzten klasikoak.

Horrek, musikariak asko motibatzen ditu eta taldeek ez zuten hutsik egin. Taula gainera igotako talde bakoitzak bere gustoko musika aukeratu eta mozorroarekin eszenatokian rock izar sentitzeko aukera izan zuen. Azken asteetako entseguak eta gero, zuzenean ederto aritu ziren musikari guztiak.

Jaialdiak, gainera, Durangaldeko talde asko elkartzeko aukera eman du. Giro ezin hobea egon zen musikarien artean eta argi dago gure eskualdeko musika indartsu dagoela.

Zorionak guztioi eta eskerrik asko antolatzaileei!

Azken asteetako entseguak
eta gero, zuzenean ederto
aritu ziren musikari guztiak

MUSIKA>

Durangaldeko dozena bat kantari ariko dira Euskal Kantu Txapelketaren lehen saioan

Plateruenean izango da aurreneko kanporaketa, bihar; eskualdeko lau taldek eta bi neskak parte hartuko dute

Besteak beste, Ermua, Lekeitio, Durango, Atxondo eta Abadiñoko kantariak hartuko dute parte Euskal Kantu Txapelketaren Bizkaiko lehenengo kanporaketan. Bihar, 19:00etan, Plateruenean izango da saioa.

Durangaldeko dozena bat abeslarik kantatuko dute Platerueneko saio horretan: Atxondoko eta Abadiñoko Leire Pagonabarraga eta Irati Armentia, eta Bi Gehi Bi, Geu Be, Anbotopekuek eta Xaramel taldeetako kantari gazteak ariko dira bihar Durangoko kafe antzokian.

Iaz, Euskal Herriko Haur Kantarien txapelketaren bigarren saria jaso zuen Xaramel taldeak. Taldekako lehiaketan, Ainhoa Devesak, Amañur Azkaratek, Itziar Muger-

Euskal Herriko Haur Kantarien txapelketaren bigarren saria jaso zuen Xaramel taldeak

Ekainaren 3an, Bilbon izango da Euskal Kantu Txapelketaren Bizkaiko finala

zak, Maialen Izagirrek eta Maite Molinak kantatuko dute. Xaramel taldeko gazteek, binaka eta bakarka ere parte hartuko dute, gainera. Maite Molinak *Mallo bi* kantatuko du eta Amañur Azkaratek *Itsasoa gara* interpretatuko du.

Finalak Bilbon eta Donostian

Euskal Kantuzaleen elkarteak antolatzen du txapelketa hau. Durangokoaren ostean beste hiru saio egongo dira, Bizkaiko beste horrenbeste herritan, eta ekainaren 3an, BBKren Bilboko aretoan izango da Bizkaiko lehiaketaren hamargarren finala. Euskal Herriko finala, ekainaren 16an izango da, Donostiako Antzoki zaharrean. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MAIATZAK 6 20:00etan
JABIER MUGURUZA
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10euro.

MAIATZAK 9 20:00etan
UEFAKO FINALA
Sahieski, patatak eta edaria: 5euro.

MAIATZAK 10 19:00etan
DF BERTSOZALE ESKOLA
Plateruena antiteatroan.

MAIATZAK 11 20:00etan
GAZTA ZATI BAT
Jon Maia gonbidatu. Dokumentala: 5euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ZUGAN NI EGUNA
Maiatzak 5

NADIE LO QUERIA CREER
La zaranda
2010eko espainiako teatro sari nazionala
Maiatzak 12 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

MUSIKA>

Lehenengo kontzertua joko du Boston Jai taldeak Traña plazan

Iaz Trikizio taldean aritu ziren musikariek sortu dute Boston Jai; Iñaki Etkezarraga 'Etxe' berriztarra da taldeko ahotsa

"Erromeria tradizionaletikalden- du eta festarako musika egitea da gure asmoa", adierazi du Boston Jai taldeko 'Etxe' abeslariak, Iñaki Etkezarragak. Besteak beste, euskal taldeen bertsioak jo eta herrietako plazetan jai giroa zabaltzea dute asmoa taldekideek. Hainbat estilotako kantak eta trikiaren doinuak nahasten dituzte.

Maiatzaren 5ean, bihar, 23:00etan, Traña-Matienako San Prudentzio jaietan joko dute euren estraineko kontzertua.

"Jaigiro paregabea sortzeko asmoarekin irtengo gara agertokira"

Iban Larrebourek, Oskar Estangak, Iban Gurrutxagak, 'Tasu' Santanak eta 'Etxek' osatzen dute Boston Jai. Iaz Trikizio taldean jotzen zuten musikariek. Azaldu dutenez, aurreko *management* enpresarekin desadostasunak izan zituzten. Trikizio taldeak beste musikari batzuekin jarraitzen du orain, "eta guk gure bidea egitea erabaki dugu talde honekin". Horrela, aurrera egiteko helburuz sortu dute Boston Jai. Matienan, "jai giro paregabea sortzeko asmoarekin irtengo gara agertokira", esan dute.

Traña-Matienako jaietan hasi, eta "jaiak bezala, kontzertuak ere bata bestearen atzetik etor daitezela", espero dute Boston Jai taldeko musikariek. ■ I. E.



PINTURA>

Kaleko pintura lehiaketa burutuko dute Berrizen, bihar

Bizkaiko eta ingurueta margo-lariak batuko dira Berrizko kale eta txokoetan, bihar. Aire libreko pintura lehiaketa egingo dute bertan.

Goizetik eguerdira arteko tar- tea izango dute parte-hartzaileek euren margolanak osatzeko, eta lau sari banatuko ditu epaimahaiak.

Bihar bertan, 18:00etan egin- go duten ekitaldian banatuko dituzte 600 euroko lehenengo saria, 500eko bigarrena, eta 400eko hirugarrena. Gainera, 300 euroko sari berezia eskainiko diote lan onena aurkezten duen berriztarri. Aurkezturiko lan guztiak maiat- zaren 23ra arte egongo dira ikus- gai, Berrizko kultur etxean. ■ I. E.

Lan guztiak maiatzaren 23ra arte egongo dira ikusgai, kultur etxean

POESIA>

Aritz Gorrotxategi ariko da gaurko Pentsamenduaren Poesia saioan

Durangoko Arte eta Historia Museoa da Pentsamenduaren V. Poesia jardunaldien egoitza. Atzorako eta gaurko antolatu dituzte berbaldiak eta errezital- diak.

Gaur, 19:00etan ekingo dio- te jardunaldien bigarren saioa- ri. *Tolstoi: zer da artea? Kanona- ren haustura* berbaldia eskaini- ko du Aritz Gorrotxategi idazleak, eta Eva Veiga eta Antonio Casa- do da Rocharen errezitaldiagaz amaituko da Durangoko jaialdi- ren bosgarren edizioa.

Atzo, Anjel Lertxundi

Heidegger, artelanaren basobi- dean berbaldia eskaini zuen Anjel Lertxundi idazle oriota- rrak, atzo. Hitzaldi horrek zabal- du zuen emanaldia, eta ostean, Oier Gillanek, Nerea Beldarra- nek eta Martin Etxeberriak erre- zitaldia eskaini zuten. ■ I. E.

ANTZERKIA>

"Gazteen unibertso kreatiboa" agerian, Zugan Ni Egunean

Bost urte dira gazteak antzerkira gerturatzeko helburua duen ekimena abiatu zutenetik, eta aurten egun bi antolatu dituzte estrainekoz; bihar izango da lehenengoa, Durangon



Maiatzaren 5ean Duran- gon eta 12an Zorno- tzan burutuko dituzte Zugan Ni Egunean. Iurreta, Duran- go eta Zornotzako udal ordezkari- ek eta Markeliñe antzerki talde- ko Joserra Martinezek aurkeztu zuten ekimena, atzo.

Bihar, San Agustín antzokia izango da Durangoko Zugan Ni Egunaren kokaleku nagusia, bai- na kalean ere ikusaraziko dute gaz- teen lana. 12:00etan hasita, hain- bat ekintza eta musika emanaldi egongo dira, eta Barrenkalen kale antzerkia eskainiko dute Jesuitak ikastetxeek. Elkarrekin bazkal- du, eta arratsaldean antzokiko oholt- zan ariko dira aktore gazteak. Zortzi obra izango dira San Agus- tinen ikusgai, 17:00etan hasita.

Markeliñe antzerki taldeak kudeatzen du orain bost urtetik Zugan Ni ekimena. Markeliñeko

Joserra Martinezen esanetan, "gazteen unibertso kreatiboa" zabalduko dute emanaldiotan. Iurreta, Durango, Zornotza, Igo- rre eta Elorrioko gazteek ikastur- te honetan sorturiko lanak kale- ra aterako dituzte Durangon. Guz- tira, ehun gazte aritu dira Zugan Ni proiektuan, aurten: hamalau eta hamazortzi urte artekoak.

Barrenkalen kale antzerkia eskainiko dute Jesuitetako gazteek

Durangaldeko eta Arratiako ehun gaztek hartu dute aurten parte

Antzezlanen sorkuntza pro- zesu osoa gazteek eurek burutu dezatela bultzatzen du Zugan Ni antolatzen duen Markeliñek.

Horrela, gidoia idaztea euren lana izan da, jantziak edota esze- nografia pentsatu eta prestatzea ere bai, eta baita argiak eta soi- nua lantzea ere.

Durangon emango dituzten obrak prestatzeko, 'krisia' gaia izango dute oinarri edo abiapun- tu bihar.

Antzezlanetako batzuk, bes- te herri batzuetan ere ikusi ahal- ko dira: Iurretako kultur etxean, gaur; maiatzaren 8an, Elorri- on; eta maiatzaren 10ean Igorren.

Antzerkia da ekimenaren ardatza, baina, musikak ere izan- go du San Agustinen tokirik: Durangoko musika eskolako txe- lo-jotzaile gazteen taldeak joko du antzezlanen arteko tartetan. ■ I. E.

Durangaldea
www.bizkaikotxapeketa.biz

Eskualdeetako Bertsolari Txapelketa
BBT 2012

Abadiño
Maiatzaren 11n, barikua
Probalekuan, 22:00etan

Garikoitz Sarriugarte
Erant Uruburu
Gorka Lazkano
Julen Solaluze
Ander Salaberria
Peru Magdalena

anboto

AMETS HANDIAK

prezio
txikiak

Utzi hegan egiten zure
irudimenari eta zure
ametsek joan nahi duzun
lekura eraman zaitzatela

kostaldeko
eskaintzetan

%10eko
deskontua
eginda

zirkuituetan

%24ko
deskontua

eginda Eroski Red
txartelaz
erosiz gero

erreserba
ezazu zure uda
hegan

eta goza ezazu
eskaintza
bikainekin

Benidorm 210€

Etainaren 1etik 8ra. 8 egun - 7 gau. Alameda hotela***.
Mantenu Osoa. 1. eta 2. HAURRAK DOAN.
Eskaintzak apirilaren 25a baino lehen egindako
erreserbetarako balio du.

Tenerife 240€

Maiatza. 8 egun - 7 gau. Hegazkina. Florida⁹⁹ Estudio
2 lagunentzako apartamentuak. Eskaintzak apirilean
egindako erreserbetarako balio du. TASAK BARNE.

EROSKI bidaiak

Ametsetan? Egizu hegan!

Onarritako prezioak pertsonako logela bikoitzean.
Kortusutatu daitezke eta anto atzaleen gainerako baldintzak.
Kudeaketa-gestioak 6€. Plaza kopuru mugatua. ENK 618.

Q
CALIDAD TURISTICA

R
Reserva
ENK-1479-2002

Q
EXCELENCIA

Q
Excelencia en
la Gestión



www.viajeseroski.es



AISIALDIA

auzorik auzo



Zenita auzoa, urak oparotasuna eta bizimodua ekarri zuen sasoi gogoratuz

XIX. mendeko bainuetxe ezaguna, errotak, liho putzuak... Errekaren bidea jarraituz altxor historikoak aurkituko ditu bisitariak

Madril, Zaragoza eta Bartzelonatik etortzen ziren bisitariak Baños Viejos bainuetxera

Liho putzuak ere ikusi ahal dira: landarea uretan bigundu eta zuntza ateratzen zuten

Zenitaren historia, Elorriko auzoa goitik behera zeharkatzen duen erre-kari estu lotuta dago. Zerutik begiratu, emari etengabe horrek marraztutako lerroa da auzoaren bizkarrezurra, eta sasoi batean haren inguruan sortutako bainuetxe, errota, liho putzu eta baserriak, aldiz, bihotza. Denboraren joanak zimurtu ditu hormak eta higatu harriak, baina balio historikoak inoiz baino biziago dirau eta memoria apur bat egitea nahiko da XIX. mendeko loraldia zelakoa izan zen imajinatzeko.

Orain Lourdes ikastetxea dena, Baños Viejos izeneko bainuetxe garrantzitsua izan zen 1840tik 1907ra. Udarik onenetan, 900 bisitari jaso zituen Madrildik, Zaragozatik eta Bartzelonatik; eta auzoari ez ezik herria osoari lana eta etekina ekarri zion, Ane Solozabal historialari eta irakasleak gogorarazi duenez: “*Belle Époque* antzeko bat eragin zuen”. Bainuetxeak eraikinaren azpialdean eta iparraldean zituen iturburu preziatuak, gaixoak hobetu zitezten propietate aproposak zituztenak. Ur hori Uratsa izeneko iturrian dago, eta arraultza ustel usaina badu ere bere propietateengatik prezia-tua izaten jarraitzen du. Bainuetxeak, sasoi-

rik emankorrenean, 150 bat logela, liburutegia eta aisialdi guneak izan zituen.

Gaur egun, jatorrizko eraikinetik mantentzen den egitura bakarra fatxada da. Errekan gora eginda, sei errota aurkitu ditza-ke bisitariak, XVIII. eta XIX. mendetik hasi eta “erdi arora arte” eramaten dutenak. “Auzoaren bizitza zirela esan daiteke, errotak jana ematen zuelako”. Liho putzuak ere

ikusi ahal dira erreka-aren gune batean: “XVIII. mendean liho landareak ekoizteko joera zabaldu zen. Zenitan ikusi ahal diren putzuak lurrezkoak ziren, eta hantxe sartzen zuten landarea, bigundu eta zuntza ateratzeko”.

Auzorik auzorako ibilaldi honetan behe-tik gora joanda azkenengo geltokia Argiñe-tako nekropoli ezaguna da, bisitariarentza-ko derrigorrezko galeakua dena.



laguntzaileak



KIROLAK >

@anbotokirola

“Aurtengo denboraldian atsedendietako otartekoek gozoagoak ematen dute”



Txema Lasa

Adina: 64 urte
Herria: andoaindarra da eta Durangon bizi da 1972tik
Athleticen: sei denboraldi eta 222 partidu ofizial
Finalak: 1972-73an Errege Kopa irabazi zuen. 1976-77an UEFA eta Errege Kopako finalak galdu zituen

Athletic-eko medikua den Paco Anguloren aita.

Marcelo Bielsaren lana zer iruditzen zaizu?

Iazkoagaz alderatuta ia talde bera du Athletic-ek eta Bielsak bere jokatzeko modua eta bere filosofia gehitu ditu. Alde horretatik aldaketa izugarria jasan du taldeak. Aurreko urteetan teniseko partiduak ematen zuten Athleticen partiduek. Iaz ere zelai erdikoek mugitzen zuten baloia, ez diot ezetz, baina aurtengo desberdina da.

Txema Lasak 1976-77 denboraldian UEFA eta Errege Kopako finalak jokatu zituen Bilboko Athletic-egaz. Biak galdu zituen. Aurtengo, bere talde ohia beste final biren atarian dagoen honetan, garai hura nola bizi izan zuen eta datozenak nola biziko dituen kontatu digu.

1977ko UEFA finala Juventus-ek irabazi zuen kanpoan sartutako golen balio bikoitzagatik. Zer oroitzapen duzu?

Gogoan dut irabaztea merezi genuela. Han 1-0 galduta hemen partiduari buelta ematea posible zen, baina nahiko hasieran sartu zuten gola erabakiorra izan zen. Aukera asko izan genituen, baina Dino Zoff-ek jaurtitako dena geratu zuen. Ikaragarria izan zen atezain horrena. Bera barik partiduak 4-1 amaituko zuen. Epaileak ere ez zigun mesede handirik egin.

Ostean, urte berean, Errege Kopa galdu zenuten, Betisen kontra eta penaltietan.

Partidu horretan lesionatu egin nintzen gainera. Bigarren zatian aldatu egin ninduten. Nire ustez finalean zorte txarra izan genuen. Partidua kontrolpean izan arren, ez genuen asmatu. Ondoren, penaltia etorri ziren eta ez ginen ondo ibili.

Txapeldunaren loria bizitakoa ere bazara. Athleticen emandako lehenengo urtean Errege Kopa irabazi zuen.

Bai, 1972-73 denboraldian irabazi genuen, Castelloren aurka. Harmailetako giroa ikaragarria izan zen. Castellok lau mila bat

zale eraman zituen Santiago Bernabeura eta gainerako denak Athletic zaleak ziren. Ospakizunak ere hunkigarriak izan ziren. Autobusez bueltatu ginen eta Otxandion eta Durangon geraldia egin genituen; txanpanagaz ospatu genuen garaipena. Ez dut berrik egun haiek deskribatzeko. Ortuan lanean zebiltzan baserritarrak, aitzurra utzi eta korrika etortzen ziren autobusera, txaloak jo eta euren poza agertzera. Hunkigarria zen, ezin genuen sinestu. ‘Hau guztia posible da?’ esaten genion elkarri.

Europa Leagueko finalean zer aukera ikusten dizkiozu aurtengo Athletic-ek?

Simeonegaz hobetu egin da Athletic Madrilen jokoa, baina badakigu zer eman dezaket, eta ez da sorpresarik egongo. Irabazi dezakegula uste dut. Valentzia arerio arriskutsuagoa zela esango nuke.

Ondoren, Kopako finala etorriko da. Bartzelonaren aurka zer aukera du Athletic-ek?

Athletic-ek eta Bartzelonak antzerako jokamoldea dute. Gertatzen dena da Bartzelonak begiak itxita jokatu dezakeela urte asko daramatzalako filoso-

fia berdinean. Athletic aurtengo hasi da eta emaitza oso ona eman dio orain arte. Partidu oso polita ikusiko dugula uste dut, baina irabazteko zailagoa da. Europa League irabazteko aukera gehiago ikusten dut.

Non ikusiko dituzu partiduak?

Etxean, tabernan edo txokoan lagunekin. Durangon, urrun barik ibiliko naiz.

Zein antzekotasun eta diferentzia ikusten dizkiezu orduko eta oraingo taldeei?

Diferentzia asko daude, futbola bera ere asko aldatu delako. Prestaketarena eta elikadurarena adibide argia da. Lehen asko pentsatu barik jaten genituen tortilak, okela xerrak, arrautzak... Orain zorrotz daramate hori guztia. Gure sasoian, Patxi Angulo izan zen elikadura arautzen hasi zitzaiguna, gaur egun

Aurtengo San Mamesera joatea gozamen dela adierazi duzu.

Halaxe da-eta! Atsedendiko otartekoak ere gozoagoa ematen du aurtengo.

Athleticeko zein jokalarik erakartzen du zure arretoa aurtengo?

Izan duen garapenagatik, De Marcosek. Motorren bat du nonbait ezkatututa; atzean, aurrean, alde guztietan dago! Iturraspe ere maila handian dabil.

Berrito final bitara heltzea zaila izango da.

Aurtengo oso talde ona dugu, edozein egoera, une eta partidutan aurpegia emateko prest dagoena. Hori gutxi balitz, jokalaria asko oso gazteak dira. Kontua da, aurtengo lako denboraldi bat errepikatze hainbat faktorek bat egin behar duela eta hori zaila da. Baina oraindik aurtengo ez da amaitu! ■ J.Derteano

Baserritarrak, aitzurra utzi eta korrika etortzen ziren, poza agertzera

Diferentzia asko daude, futbola bera ere asko aldatu delako

Aurtengo oso talde ona dugu, uneoro aurpegia emateko prest dagoena



Txema Lasa besoak jasota Juventus-ekin kontrako finalean.

Nerbioak jai giro bihurtzeko prest doaz Bukarestera

Bai zelaian, bai harmailetan, Durangaldea presente egongo da eguazteneko finalean

Europa Leagueko finala hurreratzeko doan heinean, ilusioa eta urduritasuna maila berean ari dira hazten. Gehienek etxe inguruan eta lagunartean biziko dute finala, baina Durangaldea ondo ordezkatzuta egongo da Bukaresten (Errumania), bai zelaian eta bai harmailetan.

Fernando Amorebieta eta Ander Iturraspe titular izango dira

Partiduak ikusmin handia eragin du eskualdean ere, eta UEFAk talde bakoitzari eman dizkion 7.000 sarreraren zozketan, Durangaldeko athletic zale batzuk zorteko izan dira. Haien animoak eta oihuak beharrezko izango dituzte Athleticeko jokalariek, azken aldian hazita dabilen Atletico Madril

taldea menderatzeko. Athleticen jokalaria batzuk, gainera, Durangaldekoak dira. Marcelo Bielsa entrenatzailea hamaikako finkoen zalea denez, Ander Iturraspe abadiñarra eta Fernando Amorebieta iurretarra hasieratik ipiniko ditu. Abadiñarrak lasaitasuna, oreka eta jokoa ematen dio Athleticari eta Bielsaren sisteman funtsezko pieza da. Iurretarrak, aldiz, sendotasuna eta indarra eskaintzen dizkio, beharrezko dohaiak beti erasora jokatzen duen talde batean. Koikili Lertxundi otxandiarak eta Xabier Castillo iurretarrak ere hurretik jarraituko dute finala, jokatu ez arren. **Finala zuzenean, Elorrion** Elorrion finala zuzenean eta konpainian ikusteko aukera egongo da. Udalak jakinarazi duenez, eguaztenean pantaila erraldoia ipiniko baitu Gernikako Arbola Plazan. ■ J. D.



2009ko Errege Kopako finala ere ikusmin handiz jarraitu zuten Durangaldean.

Plateruenak final biak eskainiko ditu zuzenean

Plateruena kafe antzokiak pantaila erraldoian eta zuzenean eskainiko ditu Europa Leagueko eta Espainiako Errege Kopako finalak: "Gertakari honen aurrean, jai giro herritarr

rra sortzea da helburua", dio Beñat Gaztelu-Urrutia Platerueneko arduradunak. Eguaztenean, 20:00etatik aurrera, saiheskia, patatak eta garagardoa edo freskagarria

banatuko dituzte bost euroren truke. Ostean, 21:05ean hasita, Bukaresteko finala eskainiko dute. Maiatzaren 25ean ere prezio berean errepikatuko dute menua. Gainera, Madrilgo finalaren aurretik, 20:00etan hasita, 1984ko kopako finala eskainiko dute. Athleticen 50 kirol kamiseta ere zozkatuko dituzte. ■ J. D.

Bukarestera goaz!



Iñigo Landaburu - Durango

Kiniela: 1-3

"Athleticek aukera guztiak ditu Bukaresten irabazteko. Manchester eta Shalkeri irabazi eta gero finalean ere garaipena eskuratzea itxaroten dugu Athletic zale guztiok"



Ane Abanzabalegi - Durango

Kiniela: 1-2

"Gabarra itxaroten dut maiatzaren 26an Bilbotik zehar, zergatik ez. Athleticen jokalaria gazteak diren arren, joko ona egiten dabilta eta irabazteko aukera asko dituzte"

Alex Gallastegi - Abadiño

Kiniela: 1-3

"Aurrean izango dugun taldeak kalitate handia izan arren, Athleticen bere neurria ematen badu, edozein talde garaitzeko ahalmena dauka. Aupa Athletic!"



Iñigo Lasuen - Abadiño

Kiniela: 1-2

"Partidu gaitza izango da, baina aukera asko ditugu irabazteko. Athletic zaleok Denboraldi hau inoiz baino poztasun handiagoagaz bizitzen ari gara"



Koldo Zarate - Durango

Kiniela: 1-2

"Lisboako Sporting kontrako finalerdian inoiz baino urduriago egon nintzen. Finala bizitzan behin bakarrik pasatu ahal da, eta tituluari ezin diogu eskapatzen utzi"



Asier Bilbao - Durango

Kiniela: 1-2

"Edinburgon (Eskozia) ingelera ikasten nabil eta bertatik joango naiz partidura. Nire ustez Toque-rok sartuko ditu gol biak. Bigarrena, 96. minutuan eta eskuagaz, joko zkanpo dagoela"

Enrike Jauregi - Atxondo

Kiniela: 1-3

"Lehengusuaren sarreragaz noa Bukarestera. Madrilera ere joateko asmoa daukat. Gatxa da, baina irabaziko dugulakoan nago. Gabarra irten-go da Bilbotik zehar eta itzela izango da!"



Antxon Gallastegi - Durango

Kiniela: 0-2

"Lehengusuak deitu zidan sarrera bat libre zuela esanez eta, birritan pentsatu barik, Bukarestera noa. Bidaia hori guztia egiteko prest egonda, irabaztea itxaroten dut"



Txanpana, txapliguak eta prozesioa igoera ospatzeko

Ohorezko mailarako igoera Rafa Zugazartazari eskaini dio lurretakok



Partidua amaitzeko hamar minuturen faltan sartu zuten gol erabakiorra. Jon Iglesias

Azken denboraldi bietan beste hainbeste igoera lortu ditu lurretakok, eta datorren urtean Ohorezko mailan lehiatuko da. Liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan segurtatu zuten igoera, etxean Mungia 3-2 menderatuta. Larrakozelai lepo bete zen egun historikoa ospatzeko. Izan ere, Ohorezko maila lurretakok inoiz jokatu duen mailarik altuena izango da.

Epaileak azken txistua jo zuenean hasi zen ospakizuna: "Zelai erdian batu ginen denok, elkar besarkatuz, salto eginez..."

Txanpana ere atera genuen", gogoratu du Iñigo Goenaga jokalaria. Irudi hunkigarriak ere utzi zituen partiduko ostekoak. Rafa Zugazartaza, urte askoan klubeko presidentea izana, iaz hil zen eta berari eskaini zioten lorpena: "Eguzkiñe Uriondo, Rafaren emaztea, zelaira jaitsi zen eta denok besarkatu gintuen. Hunkigarria izan zen. Igoera Rafari eskaini nahi diogu, urte askoan zuen dena eman ziolako klubari".

Ospakizuna ez zen futbol zelaira mugatu. Iaz legez, kamioi berezi batera igo, lurretako uda-

lerriaren bandera eskegi eta Larrakozelaitik herrigunera jaitsi ziren jokalaria eta klubeko ordezkariak. Gozokiak eta beren beregi igoera ospatzeko 150 kamiseta banatu zituzten.

Entrenatzaileak baiezkkoa

Datorren urtera begira taldea sendotzen saiatuko direla dio Jose Antonio Legorburu presidentek. Aulkian, aldiz, ez da aldaketarik egongo: "Beste denboraldi batez behintzat gurekin jarraituko duela hitz eman digu Jon Gurutz Vazquezek". ■ J.D.

Bizkarrak hiru triatloi egin ditu egun bitan, eta bat irabazi du

Saltoki Trikidetik taldean ari da Gorka Bizkarra mañariarra, eta sasoi betean ekin dio triatloi denboraldiari. Joan zen asteburuan Senpereko hiru probatan lehiatu zen eta horietako bat, sprint modalitatekoa, irabaztea lortu zuen.

gorkabizkarra.blogspot.com blogean iragarri zuen Bizkarrak proba guztiak entrenamendu gisa erabiliko zituela, Bilbokoa eta Zarautzekoa lako hitzordu garrantzitsuetarako prestaketa moduan. Asteburu horretako balantzea oso ona izan da.

Zapatuan taldekako triatloian parte hartu eta 13. amaitu zuen. Domeka goizean etorri zen garaipena. Itsasotik 12. irten eta bizikletan bigarren postura arte igo zuen; korrikako tartean ipini zen lider eta hantxe mantendu zen helmugara arte.

Arratsaldean, distantzia olinpikoan, nekeak jota egon arren, 12. sailkatzea lortu zuen mañariarra. ■ J.D.

Lehenengoz futbol campusa antolatuko du Kulturala taldeak

Durangoko Kulturala klubak futbolaren inguruko campusa antolatuko du, aurten lehenengoz, ekainaren 25etik uztailaren 6ra, Tabira futbol zelaian. Sei eta hamasei urte arteko gaztetxoei zuzenduta dago teknifikazio eta ikasketa campusa

eta astebetekoa edo aste bikoa izan daiteke. Tabira futbol zelaian bertan garatuko diren entrenamenduez gainera, hainbat bisita kultural ere prestatu dituzte egun horietarako. Gainera, aurten parte-hartzaile berezi baten bisita izango dute: Oskar Tabuenka Athletic-eko jokalaria ohia.

Izena emateko azken eguna ekainaren 16a da eta plaza muga dago. Honako webgunean eman daiteke izena: www.tucampusdefutbol.com/campus-durango/. ■ J.D.

Irribarria eta Azpirik irabazi dute Abadiñoko pilota txapelketa

San Prudentzio Pilota Txapelketako finalek ez zuten zaleen pilota gosea ase. Iker Irribarria eta Igor Azpiri erraz nagusitu zitzaizkien Gorka Ibarrondori eta Rober Uriarteri, hurrenez hurren.

Gazteetan Irribarriak (Arama, Gipuzkoa) erakustaldia

eskaini zuen (22-6). Hamabost urtegaraz bera baino pilotari nagusiagoen kontra aritu da txapelketa osoan, baina ez da nabaritu. Ezkerrez tanto guztiak menderatu eta aurrean mota guztietako erremateak eskaini zituen. Zalantza barik hurretik jarraitu beharreko pilotaria da.

